## Sopelanako Udala

### Sopelako Jaiak Arautzen dituen Udal Ordenantza

Sopelanako Udalak, 2013ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, hasiera batez onartu zuen «Sopelanako jaietako udal-Ordenantza erregulatzailearen aldaketa (296/1997 Dekretuaren bigarren aldaketako, abenduaren 16ko, ikuskizun publikoetako ordutegiak eta jolas-jarduerak ezartzen direnaren, martxoaren 13ko, 36/2012 Dekretura egokitzeko)» behin betiko onartutzat jotzen da, hala ezartzen baita Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluko c) idatz zatian –apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketa berrian–. Horiek horrela, adierazten da aipatutako aldaketa indarrean sartuko dela Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea amaitu eta hurrengo egunean, betiere epe hori testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatuta. Araudiaren aldaketa behin betiko onartzearen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoan, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak (uztailaren 13ko 29/1998 Legea) 8. eta 10. artikuluetan aurreikusitako eskumenen banaketaren arabera; errekurtso hau jartzeko epea 2 hilekoa da iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Araudiaren aldaketak honako hau hartzen du:

— 2. artikulua, «Jai-egutegia eta establezimenduen ordutegia».

— I. eranskineko ("Irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateek txosnak jartzeko irizpideak") bederatzigarren atala.

— II. eranskineko ("Ostalaritzako establezimenduek kanpoan barrak jartzeko irizpideak") zortzigarren atala.

Aldaketa honen ondorioz, Araudia honako erredakzioarekin gelditzen da:

SOPELAKO JAIAK ARAUTZEN
DITUEN UDAL ORDENANTZA

I. KAPITULUA

**APLIKAZIO-EREMUA**

**1. artikulua.—*Xedea***

Ordenantza honen xedea da Sopelako udalerrian egiten diren jaietako jardueren zenbait alderdi arautzea.

**2. artikulua.—*Jai-egutegia eta establezimenduen ordutegia***

— *Jai-egutegia*

Kultura Batzordea entzun ondoren, Alkatetzak/Osoko Bilkurak erabakiko du Sopelako zaindariaren jaien egutegia, ekainaren hogeita bederatzian San Pedro eta uztailaren hamaseian Karmengo Amaren ospakizunak direla eta.

— *Establezimenduen ordutegia*

Herriko jaietan establezimenduak eta baimentzen diren kanpoko barrak ireki eta ixteko ordutegia nahitaez bete beharko da. Kasu guztietan, gutxienez sei orduko tartea laga beharko da ixteko orduaren eta irekitzeko orduaren artean. Era horretako instalazioek, kanpoko megafonia baimendua badute, ezingo dituzte 85 dB-ak gainditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan ikuskizun publikoen eta jolas jardueren ordutegiak ezarri eta jarduera horien beste alderdi batzuk arautu dituen abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuan adierazitako talde bakoitzeko establesimenduak ireki eta ixteko ordutegia honako hau izango da:

## Ayuntamiento de Sopelana

### Ordenanza Municipal Reguladora de Fiestas en Sopelana

No habiéndose presentado reclamación alguna dentro del plazo de exposición al público del acuerdo de aprobación inicial de fecha 28 de mayo de 2013 de la «Modificación de la Ordenanza municipal reguladora de las fiestas en Sopelana (Adaptación al Decreto 36//2012, de 13 de marzo, de segunda modificación del Decreto 296/1997, de 16 de diciembre, por el que se establecen los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas)» dicho acuerdo queda elevado a definitivo de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49, letra c), de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, en la nueva redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, significando que este Reglamento no entrará en vigor hasta el día siguiente al que termine el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, contado desde la publicación de su texto completo en el «Boletín Oficial de Bizkaia». Contra la aprobación definitiva de la modificación de este Reglamento, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en virtud de la distribución de competencias prevista en los artículos 8 y 10 de la Ley 29/1998, de 13 de Julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en el plazo de 2 meses contados a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio.

La modificación de la Ordenanza comprende:

— El artículo 2 «Calendario festivo y horario de los establecimientos».

— El apartado noveno del anexo I «Criterios para la instalación de txosnas por asociaciones y entidades sin fines lucrativos».

— El apartado octavo del anexo II: «criterios para la instalación de barras exteriores por parte de los establecimientos hosteleros».

Como consecuencia de la modificación efectuada la Ordenanza queda con la siguiente redacción:

ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE FIESTAS
EN SOPELANA

CAPÍTULO I

**ÁMBITO DE APLICACIÓN**

**Artículo 1.—*Objeto***

El objeto de la presente Ordenanza viene constituido por la regulación de diversos aspectos referidos a las actividades festivas que se desarrollan en el municipio de Sopelana.

**Artículo 2.—*Calendario festivo y horario de los establecimientos***

— *Calendario festivo*

Oída la Comisión de Cultura, la Alcaldía/El Pleno determinará el calendario de fiestas patronales en Sopelana con motivo de las festividades de San Pedro, veintinueve de junio y El Carmen, dieciséis de julio.

— *Horario de los establecimientos*

El horario de apertura y cierre de los establecimientos durante las fiestas patronales así como de las barras exteriores que se autoricen será de obligado cumplimiento. En todo caso entre el horario de cierre y el de apertura deberá transcurrir un periodo mínimo de seis horas. Las instalaciones de este tipo que dispongan de megafonía exterior autorizada no podrán superar los 85dbA.

El horario de apertura y cierre de las establecimientos correspondientes a cada uno de los grupos señalados en el Decreto 296/1997, de 16 de diciembre, por el que se establecen los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas y otros aspectos relativos a estas actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco será el siguiente:

cve: BAO-BOB-2014a023

ZAINDARIAREN JAIETARAKO ESTABLEZIMENDUEN ORDUTEGIA, TALDEAREN ARABERA

| | Astelehenetik ostegunera | Ostiral, larunbat eta jai bezperetan |
|---|---|---|
| 1. TALDEA | 01:00 h | 02:00 h |
| 2. TALDEA | 03:30 h | 05:00 h |
| 3. TALDEA | 04:30 h | 05:30 h |
| 4. TALDEA | 06:30 h | 07:30 h |

II. KAPITULUA

**TXOSNAK, BARRAK ETA ANTZEKOAK IPINTZEA.**

**3. artikulua.—*Aldi baterako instalazioak***

Udalerriko zaindariaren jaietan, honako hauek ipini ahalko dituzte txosnak, barrak eta antzekoak:

1. Irabazi asmorik gabeko elkarteak eta erakundeak.

2. Ostalaritzako establezimenduak, beren lokalen aldamenean instalazioak ipintzeko, betiere beren jarduera nagusiaren osagarri gisa.

**4. artikulua.—*Deialdia eta ebazpena***

Aurreko artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako, interesdunek eskaera epe barruan aurkeztu beharko dute, Alkatetzak egindako deialdi publikoan eskatzen diren agiri osagarriekin batera. Eskaera-orrian, instalazioek okupatuko dituzten eremuak eta baldintza zehatzak adieraziko dira.

Eskaeren gainean ebazteko, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

— Entitatea zenbateraino sustraitua dagoen eta zer ibilbide duen (sorrera-urtea eta egiten dituen jardueren interesa).

— Entitateak zenbat bazkide edo kide dituen.

— Txosna ustiatzearen ondorioz lortutako baliabideak Sopelan jarduera eta proiektuak garatzeko erabiliko diren.

**5. artikulua.—*Jaien iraupena***

Jaiak, ahal dela, elkarren segidako egunetan egingo dira, ez dute asteburu bat baino gehiago hartuko, eta inola ere ez dute iraungo hamar egun baino gehiago.

**6. artikulua.—*Baimendutako gehieneko ordutegiak eta soinumailak***

Ireki eta ixteko ordutegia nahitaez bete beharko da. Txosnak eta kanpoko barrak ireki eta ixteko ordutegiak Ordenantza honetako eranskinetan ezartzen dira.

Instalazioak ez dira irekiko 12:00ak baino lehen. Txosnen esparruan instalatutako txosnek eta kanpoko megafonia baimendua duten ostalaritza-establezimenduek ezingo dituzte gainditu 85 dbA-ak.

**7. artikuluak.—*Jaietan ipintzen diren ostalaritza-instalazio bereziak eta antzekoak***

— Instalazioak ezingo dira, inola ere, zoladuran edo lur naturalean ainguratu.

— Okupazio-aldia, instalazio motaren arabera, Udalak zehaztuko du; hain zuzen, Udalak erabakiko du noiz muntatu eta noiz desmuntatuko diren.

— Instalazioek, kasu guztietan, erakunde baimenduaren izenarekin identifikaturik egon beharko dute.

— Eska litekeen dokumentazio orokorraz gain, eskaerarekin batera, krokis bat aurkeztu beharko da. Krokisa eskalan edo bornatua aurkeztu ahalko da, eta albait gehien zehaztuko ditu fatxada, espaloi, sarbide, mugakideekiko tarte, galtzada eta abarren arteko erlazioari buruzko datuak.

— Tasak eta bidezko diren gainerako zergak aplikagarri diren ordenantza fiskaletan ezarritakoarekin bat etorriz ordainduko dira.

— Jai-eremuen barruan eta eremu horietatik gertu dauden lokaletan, sartzeko ate nagusiaz gain beste ate eta leihoren bat badute, barrutik kanpora zerbitzatu ahalko da jendea. Instalazio horrek ezingo ditu aldameneko espaloiak inbaditu.

FIESTAS PATRONALES HORARIO ESTABLECIMIENTOS SEGÚN GRUPOS

| | De lunes a jueves | Viernes,sábados y vísperas de fiesta |
|---|---|---|
| GRUPO 1 | 01:00 h | 02:00 h |
| GRUPO 2 | 03:30 h | 05:00 h |
| GRUPO 3 | 04:30 h | 05:30 h |
| GRUPO 4 | 06:30 h | 07:30 h |

CAPÍTULO II

**INSTALACIÓN DE TXOSNAS, BARRAS Y SIMILARES**

**Artículo 3.—*Instalaciones eventuales***

Durante las fiestas patronales del municipio, las txosnas, barras y similares que se instalen podrán ser de:

1. Asociaciones y Entidades sin ánimo de lucro.

2. Establecimientos hosteleros para instalaciones anexas a sus locales y de carácter siempre accesorio a su actividad principal.

**Artículo 4.—*Convocatoria y resolución***

A los efectos señalados en el artículo anterior, los interesados presentarán la correspondiente solicitud en el plazo y con la documentación complementaria exigida en convocatoria pública efectuada por la Alcaldía, en la que se determinarán las diversas áreas ocupables y condiciones concretas de las instalaciones.

La Resolución de dichas solicitudes tendrá en cuenta las siguientes consideraciones:

— Arraigo y trayectoria de la entidad (año de creación e interés de las actividades desarrolladas).

— Número de socios e integrantes de la entidad.

— Aplicación de recursos obtenidos en la explotación de la txosna a actividades y proyectos a desarrollar en Sopelana.

**Artículo 5.—*Duración de las fiestas***

Las fiestas se desarrollarán en días preferentemente seguidos y no abarcarán más de dos fines de semana y en ningún caso más de diez días.

**Artículo 6.—*Horarios máximos permitidos y niveles sonoros***

El horario de apertura y cierre será de obligado cumplimiento. Los horarios de apertura y cierre para las txosnas y barras exteriores se establecen en los anexos de la presente Ordenanza.

La apertura de las instalaciones no se realizará antes de las 12:00 horas. Las txosnas instaladas en el recinto destinado al efecto así como los establecimientos hosteleros con megafonía exterior autorizada, no podrán superar los 85 dbA.

**Artículo 7.—*Instalaciones especiales de hostelería y similares en período de fiestas***

— Las instalaciones no podrán, en ningún caso, ser ancladas en el pavimento o terreno natural.

— El período de ocupación, según los tipos de instalación, vendrá determinado por el Ayuntamiento, que determinará los días de montaje y desmontaje.

— Las instalaciones deberán estar en todos los casos identificadas con el nombre de la Entidad autorizada.

— Además de la documentación general exigible, todas las solicitudes incluirán, croquis, bien a escala o acotado y lo más detallado posible en lo referente a datos como relación entre fachada, aceras, accesos, separación a colindantes, calzadas, etcétera.

— Las Tasas y demás tributos que resulten se abonarán conforme a lo dispuesto en las Ordenanzas Fiscales aplicables.

— Los locales que estuvieran dentro de las zonas festivas y próximos a ellas y que dispongan de puertas y ventanas además de las de acceso principal al local, podrán servir al público desde dentro del local al exterior sin invadir con la instalación las aceras colindantes.

cve: BAO-BOB-2014a023

— Jaien harira emango diren ezohiko baimen horiek soil-soilik behar bezala legeztatuta dauden eta urte osoan irekita dauden ostalaritza-establezimenduei emango zaizkie.

— Halako baimenak ematen zaizkien lokalek normal funtzionatu beharko dute jaietan, eta emakume eta gizonen komun higieniko-sanitarioak irekita eta erraz iristeko moduan eduki beharko dituzte bezeroentzat.

— Galtzada oholtza edo antzekoak muntatuz okupatzen bada, zintarriak sestran jartzeko, hamar zentimetroko tartea lagako da gutxienez, hala garbiketa-zerbitzuak nola euriak sortutako uren zirkulaziorako, urak zintarrietan instalatutako hustubideetatik ateratzeko eragozpenik izan ez dezan.

— Halako baimenak ematen zaizkien lokalen arduradunek edo jabeek garbi eduki beharko dituzte okupatutako eremuak eta inguruak, eta, horrez gain, udal zerbitzuei erraztasunak eman beharko dizkiete beren eginkizunak ahalik eta zailtasun gutxienarekin bete ditzaten.

— Oro har, ez da baimenik emango trafikoa eteten duten instalazioetarako edo antzekoetarako.

— Eskaerarekin batera aurkezten den memorian, aurreikusitako jarduera nolakoa izango den zehaztuko da, hala instalazioan eman beharreko zerbitzuei dagokienez, nola inguruneari egokitutako apaingarrien ezaugarriei dagokienez.

— Instalazioekin ezingo dira zuhaitzak inguratu, eta ezingo dira bankuak edo zuhaiztiak erabili baimendutako muntaketari lotutako elementuak oratzeko edo bermatzeko, ez linea elektrikoari eta pankartei eusteko elementu gisa, ez eta egiturazko elementu gisa ere. Berdegunean ez da lagako materialik eta instalazio lagungarririk.

III. KAPITULUA

## SEGURTASUNEKO ZERBITZU OROKORRAK

### 8. artikulua.—*Arau orokorrak*

Instalazio guztiek beteko dituzte indarreko araudiaren arabera kasu bakoitzean beharrezkoak diren segurtasun-betekizunak.

### 9. artikulua.—*Segurtasun-arauak*

Jarduera hasi aurretik, egituraren dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da udaletxean, eta, horrekin batera, 1:100 eskalako plano bat eta segurtasun eta muntaketaren ziurtagiri bat. Ziurtagiri hori teknikari gaitu batek egina beharko du izan, eta dagokion elkargoak ikus-onetsia egon beharko du. Horren bidez, bermatu beharko da instalazioaren egitura irmoa dela. Halako ziurtagiririk ez da aurkeztu beharko instalazioek konplexutasun tekniko handirik ez badute, edo instalazioaren ezaugarriengatik halakorik behar ez badute.

Ezingo dira zoladuran ainguratu, eta nahitaezkoa izango da eusteko beste elementu batzuk erabiltzea, hala nola zapatak eta zurezko ziriak.

Errekuntza- edo berokuntza-aparatuak instalatuz gero, gutxienez 1,5 metroko tartea lagako da elkarren artean. Gas-bonbonek segurtasun-balbula bat izango dute.

Gutxienez, ABC motako hautsezko su-itzalgailu bat ipini beharko da, 21A-113B eraginkortasuna duena; su-itzalgailuaren berrikuspen guztiak egunean eduki beharko dira, eta ezingo da erabiltzeko oztoporik izan.

IV. KAPITULUA

## BESTE ARAU OROKOR BATZUK

### 10. artikulua.—*Jardueraren memoria*

Erakunde eskatzaileek azalpen-memoria labur bat aurkeztu beharko dute egin gura duten jardueraren inguruan. (Zehaztu janaria prestatu eta/edo salduko den).

Txosnen eta baimendutako aldi baterako gainerako instalazioen titularrek, aurrez, eska litezkeen udal eskubide guztiak ordaindu beharko dituzte, erantzukizun zibileko poliza bat itundu beharko dute, hala badagokio, indarrean den araudiarekin bat etorriz, eta berme bat jarri beharo dute, banku-abal baten bidez edo eskudirua gordailutuz, sor litezkeen era guztietako erantzukizunei aurre egiteko, are hirugarrenei egin diezazkieketen kalteei aurre egiteko ere.

— Estas autorizaciones extraordinarias con motivo de las fiestas se concederán exclusivamente a los establecimientos de hostelería que estén perfectamente legalizados y abiertos el resto del año.

— Será obligatorio que los locales a los que se les concedan estas autorizaciones funcionen durante el periodo festivo con normalidad y tengan los servicios higiénicos sanitarios de señoras y caballeros abiertos y accesibles al público cliente.

— En los casos de ocupación de calzada con montaje de tarimas o similares para nivelación bordillos se dejará una separación mínimas de diez centímetros para la circulación de las aguas producidas bien por el servicio de limpieza o por la lluvia, a fin de que puedan desaguar perfectamente a los sumideros instalados en los bordillos.

— Será obligación de los responsables o propietarios de los locales a los que se le concedan dichos permisos, mantener limpias las zonas ocupadas y sus entornos, así como facilitar a los servicios municipales el desarrollo de sus funciones con las menores dificultades posibles.

— No se concederán con carácter general, autorizaciones para instalaciones que supongan cortes de tráfico os similares.

— En la memoria que acompañe a la solicitud, se detallará la actividad prevista a desarrollar, tanto en lo relativo a los servicios a prestar en la instalación como las características ornamentales de la misma adecuadas a su entorno.

— No se podrán rodear árboles con las instalaciones ni utilizar bancos o arbolado como amarre o apoyo de cualquier tipo de elemento vinculado al montaje autorizado, ni como elemento de sujeción de tendido eléctricos, pancartas, ni como elemento estructural. No se depositarán materiales, ni instalaciones auxiliares en zona verde.

CAPÍTULO III

## NORMAS GENERALES DE SEGURIDAD

### Artículo 8.—*Normas generales*

Todas las instalaciones cumplirán los requisitos de seguridad que sean necesarios en cada caso según la normativa vigente.

### Artículo 9.—*Normas de seguridad*

Previo al inicio de la actividad, se entregará en el Ayuntamiento la documentación técnica de la estructura, acompañada de un plano a escala 1:100 y un certificado de seguridad y montaje emitido por técnico competente y visado por el colegio oficial correspondiente en el que se garantice la solidez estructural de la instalación, salvo las de escasa complejidad técnica o las que no lo requieran por las características de su instalación.

No se podrán efectuar anclajes en el pavimento, siendo obligatorio el uso de otros elementos de sujeción, tales como zapatas o tacos de madera.

En el caso de instalar aparatos de combustión o calor, se colocarán a una distancia mínima de 1,5 metros entre ellos. Las bombonas de gas contarán con válvula de seguridad.

Deberá instalarse como mínimo un extintor de polvo ABC y eficacia 21.ª-113B., puesto al día en sus revisiones y sin obstáculos para su utilización.

CAPÍTULO IV

## OTRAS NORMAS GENERALES

### Artículo 10.—*Memoria de actividad*

Las entidades solicitantes deberán de presentar una breve memoria descriptiva de la actividad que se pretende realizar. (Especificar si se elaborarán y/o venderán alimentos).

Los titulares de txosnas y demás instalaciones eventuales autorizadas, deberán satisfacer previamente los derechos municipales que les resulten exigibles, concertar en su caso póliza de Responsabilidad Civil de acuerdo con la normativa en vigor, así como constituir garantía mediante aval bancario o depósito en efectivo a fin de hacer frente a todo tipo de eventuales responsabilidades que originen, incluso por posibles daños a terceros.

cve: BAO-BOB-2014a023

**11. artikulua.—*Abalak eta fiantzak itzultzea***

Dagokion Udal Sailak ez badu aurreko artikuluan aipaturiko titularrei eta antolatzaileei eska dakizkiekeen erantzukizunei buruzko txostenik egiten jarduera amaitzen denetik hiru hilabete igaro baino lehen, itzuli edo ezeztatu egingo dira ipinitako abalak eta fiantzak.

**12. artikulua.—*Erantzuleak***

Jaietako jardueren eta txosnen antolatzaileek pertsona bat edo hainbat izendatuko dituzte jarduera horri loturiko guztiaren erantzule egiteko, eta erantzule horiek, euren jarduerek irauten duten bitartean, aurkitzeko moduan eta eurekin erraz egoteko moduan egon beharko dute.

**13. artikulua.—*Aurretiazko ikuskapenak***

Jarduerak hasi aurretik, horien erantzuleek nahitaez laga beharko dute legez bidezkoak diren ikuskapen eta kontrol teknikoak egin daitezen.

**14. artikulua.—*Baimenen izaera***

Emandako baimenek ez dute onuradunen aldeko eskubiderik sortuko, eta ezeztatu egin ahalko dira, arriskua, desordena, nahasmendua edo hala gomendatzen duen interes orokorreko beste edozer gertatuz gero. Baimenak automatikoki geldit8uko dira indarrik gabe, bete beharreko baldintzak betetzen ez badira. Kasu horretan, berehala gelditu eta zigilatuko da jarduera, eta beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartuko dira. Ezingo da jarduera berriro hasi, harik eta hautemandako gabeziak konpondu ondoren udal teknikariek adostasun-akta egiten ez duten arte.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.—Ordenantza honetan jasotako xedapenak aplikatzeaz gain, araudi orokorra eta ordenantza honen xedean eragiten duten arloei buruzko udal araudiak ere aplikatuko dira. (Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak, Zirkulazioa, Ingurumena, Herrilan eta Zerbitzuak, Herritarren Segurtasuna, Babes Zibila, Osasun Publikoa eta Elikadura-higienea, Fiskalitatea eta Irisgarritasuna).

Bigarrena.—Ordenantza hau betetzea, bai eta ordenantza hau interpretatzea ere, Alkatetzari dagokio, eta, eskuordetze bidez, beren eskumeneko arloetan Ataleko arduradun diren zinegotziei.

Hirugarrena.—Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko onartu ondoren eta testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hamabost egun igaro ondoren.

ORDENANTZAREN I. ERANSKINA

**IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTE ETA ERAKUNDEEK TXOSNAK IPINTZEKO IRIZPIDEAK**

Lehenengoa.—Eranskin honen xedea da irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeek txosnak ipintzeko irizpideak ezartzea.

Bigarrena.—Soil-soilik adjudikatuko dira San Pedro eta Karmengo Amaren zaindari-jaietan txosnak ipintzeko berariaz gaitzen diren espazioak.

Hirugarrena.—Legez eraturik dauden eta egoitza Sopelan duten elkarte eta entitateek, txosnak ipintzeko espazio bat eskatu gura badute, eskabide-orria eta baldintza hauek egiaztatzen dituen memoria bat aurkeztu beharko dute Udal honetako Erregistro Orokorrean, maiatzaren hogeita zortzia baino lehen, ondoko datu hauek zehaztuta:

— Entitate eskatzailearen izena.
— Entitatea modu baliodunean eratua dagoela eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
— Ordezkariaren edo ordezkarien izena, NANa eta telefono-zenbakia.
— Instalatuko den txosnaren deskribapena eta ezaugarriak.

**Artículo 11.—*Devolución de avales y fianzas***

Caso de que el Departamento Municipal correspondiente no hubiera emitido informe sobre eventuales responsabilidades exigibles a los titulares y organizadores señalados en el artículo anterior en el plazo de tres meses a partir de la finalización de la actividad, se procederá a la devolución o cancelación de los avales y fianzas constituidas.

**Artículo 12.—*Personas responsables***

Los organizadores de cualquier actividad festiva y de las txosnas designarán la persona o personas responsables de todo lo relacionado con la misma, debiendo éstas estar localizables y accesibles durante el tiempo que duren sus actividades.

**Artículo 13.—*Inspecciones previas***

Antes de iniciarse las actividades, las personas responsables de las mismas estarán obligadas a someterse a las inspecciones y controles técnicos legales procedentes.

**Artículo 14.—*Carácter de las autorizaciones***

Las autorizaciones concedidas no crean derecho alguno a favor de sus beneficiarios, pudiendo ser revocadas si sobrevinieren circunstancias de riesgo, desórdenes, alteraciones o cualquier otra de interés general que lo aconsejara. Las autorizaciones quedarán automáticamente sin efecto si se incumplieren las condiciones a las que estuvieren subordinadas, procediéndose en tal caso al inmediato cese y precinto de la actividad así como a la adopción de las medias cautelares que fuera necesaria. No se podrá reanudar la actividad hasta que los técnicos municipales procedan a levantar acta de conformidad una vez subsanadas la deficiencias observadas.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.—Las disposiciones contenidas en esta Ordenanza serán de aplicación sin perjuicio de la normativa general y municipal de en las diferentes materias que inciden en el objeto de la presente. (Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, Circulación, Medio Ambiente, Obras y Servicios, Seguridad Ciudadana, Protección Civil, Salud Pública e Higiene Alimentaria, Fiscalidad y Accesibilidad) .

Segunda.—La ejecución de la presente Ordenanza, así como la interpretación que exija la misma, compete a la Alcaldía y por delegación a los diverso Concejales y Concejalas responsables de las Áreas en las materias de su competencia.

Tercera.—La presente Ordenanza entrará en vigor tras su aprobación definitiva y el transcurso de quince días desde su publicación completa de su texto en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

ANEXO I. DE LA ORDENANZA

**CRITERIOS PARA LA INSTALACIÓN DE TXOSNAS POR ASOCIACIONES Y ENTIDADES SIN FINES LUCRATIVOS**

Primero.—El objeto del presente Anexo viene constituido por los criterios para la instalación de txosnas por Asociaciones y Entidades sin fines lucrativos.

Segundo.—Se adjudican, de forma exclusiva, los espacios que se habilitan específicamente para la instalación de las txosnas en las fiestas patronales de San Pedro y El Carmen.

Tercero.—Las Asociaciones y Entidades legalmente constituidas y con sede en Sopelana que estén interesadas en solicitar un espacio destinado a txosna presentarán solicitud y Memoria acreditativa de los siguientes extremos en el Registro General de este Ayuntamiento, antes del día veintiocho de mayo, haciendo constar:

— Nombre de la Entidad solicitante.
— Documento acreditativo de estar válidamente constituida e inscrita en el Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco.
— Nombre, D.N.I. y teléfono de la persona o personas representantes.
— Descripción y características de la txosna que se va a instalar.

cve: BAO-BOB-2014a023

Laugarrena.—Txosnak instalatzeko eskabideak erabilgarri dauden espazioak baino gehiago badira, honako hauek izango dira adjudikatzeko lehentasunezko irizpideak:

— Entitatea zenbateraino sustraitua dagoen eta zer ibilbide duen (sorrera-urtea eta egiten dituen jardueren interesa).

— Entitateak zenbat bazkide edo kide dituen.

— Txosna ustiatzearen ondorioz lortutako baliabideak Sopelan jarduera eta proiektuak garatzeko erabiliko diren.

Bosgarrena.—Aurkeztutako eskabideak Alkatetzak ebatziko ditu, dagokion udal atalak txostena egin ondoren.

Seigarrena.—Hautatutako eskabideen artean, behin-behinean adjudikatuko dira aurrez zenbakitutako espazioak, jendaurreko zozketa bidez. Zozketaren berri dagokion unean emango zaie interesa duten talde guztiei. Espazioen behin-behineko adjudikazioa Alkatetzari helaraziko zaio, hark ebazpena eman dezan.

Zazpigarrena.—Txosnen adjudikaziodun suertatzen diren entitateek nahitaez bete beharko dituzte eskatzen zaizkien betekizun guztiak. Txosnak entitate adjudikaziodunetako kideek eta kolaboratzaileek ustiatu beharko dituzte, eta inola ere ezingo zaiei hirugarren batzuei alokatu edo laga.

Zortzigarrena.—Txosnek, gehienez ere, jaiak hasi baino bi egun lehenago egon beharko dute guztiz instalaturik. Era berean, jaiak amaitzen direnetik bi egun igaro baino lehen, material guztiak kendu beharko dira. Baldintza hori betetzen ez bada, jarritako fiantza atxikiko da.

Bederatzigarrena.—Txosnak ireki eta ixteko ordutegia nahitaez bete beharko da. Erabiltzaileei arreta emateari 05:00etan lagako zaio astelehenetik ostegunera, eta 06:30ean ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan. Megafoniak ezingo ditu 85 dbA-ak gainditu, eta edonola ere 05:00etan itzali beharko da. Kasu guztietan, gutxienez sei orduko tartea laga beharko da ixteko orduaren eta irekitzeko orduaren artean. Jende guztiak jakin dezan, txosnak ixteko eta megafonia itzaltzeko ordutegiaren berri ematen duen kartel bat ipiniko da, ondo ikusteko moduan.

Hamargarrena.—Entitate adjudikaziodunek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Jaiak hasi baino hamabost egun lehenago, jabari publikoko azaleran txosnak ipintzeko behin-behineko emakida jaso duten txosnen entitate titularrek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute Kultura Sailean edo kultur etxeko sarreran:

— Entitateak egiaztatu behar du baduela erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat, frankiziaduna, eska litekeen zenbatekoaren milako 1erainokoa. Eska litekeen zenbatekoa, hain zuzen, 150.253,02 euro dira. Horrez gain, egiaztatu beharko du ordaindu duela dagokion ordainagiria.

Txosnak ireki baino egun bat lehenago, agiri hauek eduki beharko dira:

— Elikagaien manipulatzaile txartela, janaria prestatu eta/edo saltzen duten txosnetan.

